

« Ondarea eta sorkuntza »

2015eko ekainaren 27an

Tailerrak

- **Tradizioa eta egia**

Gure praktika artistikoek, emanak izan zaizkigun kode batzu segitzen dituzte. Ondotik, kode horiek berrasmatzen ditugu eta berriz ematen. Hautu batzu eginez, gure burua galdezkatuz, topaketa batzu eginez, bakoitzak bere egia eraiki du. Mutxiko bat nola dantzatzen da ? Zortziko bat nola ematen da ? Kultura eragileek horrelako galderei ekartzen dizkieten erantzunak ez dira aho batekoak eta aitortu behar da « euskal tradizioa »-ren baitan egi bat baino gehiago izan daitezkeela. Errepertorio bateko bertsio guziak transmititu beharko ote genituzke bakoitzak bere hautua egin dezan ? Tradizio batek egi bat baino gehiago izatearekin zer iduritzen zaigu ? Galera baten arriskua ? Ala alderantziz, funtsean jadanik nahasia den euskal kulturaren aberasteko aukera bat ?

Mikel Erramouspe talde lanaren aurkezle :

“Laborden metodoa erabiliko dut, kontatuz nola pasatu den gure taldean.

Lehenik hasi gira elkar presentatzen eta ohartu gira denak diferentak ginela. Hala nola, interesgarria izan da euskaldun ez den baten entzutea (Kubatik jina) bazterretik etsenpluak ematen eta, orokorrean, bakoitzaren esperientzia entzutea.

Elkar presentatu eta, berehala, gure diskuzioa abiatu da.

Lehenik, literatura aipatu dugu, gero arkitektura... Ea baden euskal arkitektura bat, alde batetik badirelarik lapurdiko baserriak edo Arnaga bezalako etxeak eta, denbora berdinean ,kontra etsenplu ainitz...

Horren ondotik, dantza aipatu dugu. Paskalek erran dauku mementu batez nahi izan zituela istorioak kondatu (lehengoak baita ere oraingoak) eta istorio horiek zutela gauzak asmatzen laguntzen. Baina gehitu du beti joaten dela espezialisten gana, ikusteko « nola egiten den hori », « nundik jiten den», mugimendu bikoitz batean, « Egia »tik hurbil dela segurtatzeko. Sentsu horretan, beste batek erran du, esplikazioneak beti falta izan zitzaizkiola dantzatu izan dituen dantzer buruz.

Azkenean, ainitzek pentsatzen dute sentsu transmisio ez izateagatik dela tradizioa hautsi.

*Laburbiltzeko **Egia eta tradizioa** galderari erantzuna joan-jinka mugimendu batetik sortzen da. Eta erranen nuke, erakaskuntza moduan bezala, luzaz ukatu arren, gaur badakigu desastre bat dela*

galdegitea gogoz atxikitzea ulertu gabe. Orduan, ulertu behar dira gauzak ...ikasteko eta horren ondotik sortzeko”.

- **Sorkuntza parte-hartzailea / Egile sorkuntza**

Frantzia guzian, kultura instituzioek proiektu parte-hartzaileen indarra berriz baloratzen dute eta gizarte lokarriaren sortzeko baliatzen dituzte, lotura horiek eskas diren hiri guneetan. Gaurregun, botere publikoek azkarki sustatzen dituzte proiektu parte-hartzaileak kontutan hartzen dituzten ekimen artistikoak. Hortan, demokrazia baten sortzeko parada ikusten dute, ideal batekin : « deneri parada eskaintzea, ez gehiago gainditzen gaituen historia horren ikusle izateko baina herritar gisa, osoki horren aktore izateko » (Frantziako Fundazioa, Komanditario Berrien Proiektua). Preseski, euskal kultura alorrean proiektu parte-hartzaile anitz badira (pastoralak, maskaradak, kabalkadak, toberak,...), kultura eta sozial munduetako militanteek eramaten dituztenak. Bizkitartean, batzuetan sorkuntza kolektibo horien balorizazio mitikoa ez dator bat emandako kalitate artistikoaren desbalorizatzeko kritikoarekin. Sorkuntza parte-hartzailea eta egile sorkuntza nola uztartu ? Gogoeta horretan, zer toki utzi kultura eragileei, arartekolariei, teknikariei ?

Pantxika Telleria talde lanaren aurkezle :

“Gai erabat politikoa da, espero dugu sentzu noblean...”

Gure lehen galdera izan da, sorkuntzan edo kulturaren, zer da inportanteena dirulaguntzen biltzeko ? Partizibatiboak diren ekimen horien inpaktoak nola neurtuak dira : hunkitua izan den jende kopuru maila edo/eta autore xedeek duten edo ez duten kalitatearen arabera ?

Partizipatiboak edo kolektiboak diren desmartxak badira gure kulturaren, aberatsak dira eta emankorrak, eta ohartzen gira ez dela bakarrik gure herrian gertatzen baina desmartxa orokor bat bihurtu direla, instituzioek bultzaturik eta agian herritarrek hortan sinesten baitute.

Badakigu, dena den, sorkuntza batek konpromisoak eskatzen dituela.

Autoreen diziplinaren arabera, konpromisoaren heina desberdina da : arte plastikoetan/arte bisualetan/idazle batentzat (bakarrik ari dena) ez da koreografobatentzat bezala izanen (talde bat muntatu beharko baitu).

Aberatsa edo lanjerosa izaten ahal da. Nork eraman behar du ? Zer demokratizatu behar da ? Zer da bakoitzaren tokia ?

Bulgarizazioaren alde gira baina sentzu noblean. Autorea babestu behar da baina proiektu kolektibo batean : Noraino babestu, noraino ireki esparru guztietan emankorra izateko?

Tradizio hitza erabat baztertu dugu, guretzat ez baita existitzen.

Alde batetik, kultura herrikoia dugu eta bestalde eskolen kultura. Kultura herrikoia deitzen dugu transmisio naturaletik datorren kultura, izan dadin familiarrik, karrikatik, edo elkarteetatik. Eskolen kultura deitzen dugu hezkuntzaren bitartez (izan dadin eskoletan edo arte eskoleta)transmititzen den kultura, manera aski razionalizatu batez. Agian bi forma horiek parekatzen ahalko dira kalitate mailan ?

Erakundeek zer xekatzen dute desmatxa parte hartzaile horiekin ? Kopurua maiz (eta ez kalitatea) eta agian bake zoziala ?

Zer da arte obra baten helburua ? Kalitate ebaluaketa behar da, nola egin behar da ? Mediazioaren lana azpimarratu dugu, diskurtso partekatu bat izateko eragileen artean.

Azkenen parte hartzaile proiektu batek duen alde positiboa da ; pertsonak dugun berezko kalitateak dator obraren kalitate handiena.

Politika gai horrekiko, herriko jendearekin egin behar da, « gure esku dago » bezalako desmartzarekin. Guk ere artistikoki gure tokia hartu behar dugu”.

- **Sailen instituzionalizatzea**

Diruztatze instituzionalak galdetzen dituzten kultura proiektuak erakunde publikoek inposatu ikerketa taula batzuen arabera aztertuak dira : dantza, ikusgarrigintza, kantua, antzerkia... Kuadro horien barnean, beste sail batzuei baliatzen dira proiektuen aztertzeko. Tailer honen xedea da perspektiba honen uzkailezea : erakunde publikoen sostengua behar duten kultura eragileek ez ote lituzkete berek beren lanaren baloratzeko sailak finkatzen ahal ?

Terexa Lekumberri, talde lanaren aurkezle

“Mintzatu gira kategorietaz : kultura proiektuak erakunde publikoek inposatu kategoriatzatzen arabera aztertuak dira. Gure xedea zen perspektiba aldatzea : ez ote lukete eragile kulturala berek erakunde publikoen kategoriak definitu behar ?

-Lehen oharra izan da instituzioen kategoriatzatzen horiek eginak direla praktika artistikoetatik abiatuz (praktikatik).

- Beste ohar bat izan da kultura publikoek gero eta gehiago kontutan hartzen dutela interdiziplinaritatea.

Guk zer balora genezake ?

-Lehen ideia handia izan da praktika ritualen eta amaturren aberastasuna. Sobera guttietsia da, ohizko kulturek oraino ezagutza eskasa badute eta ez dira sartzen frantsez kategorien kuadroan. Ez da kontutan hartua ere ez praktika horien kalitatea eta artista horien profesionaltasuna.

Hala ere, kasu egin behar da kategoriatzatzen hetsiegietan sartu gabe.

Behar litaizke ere praktika horiek gehiago ezagutarazi Euskal Herritik kanpo.

-Bigarrenik, gogoeta gune batzuei behar litaizke instituzionalizatu, jendarteak parte har dezan gogoetan politika publikoak elikatzeke.